

hagina

Hagina (*Taxus baccata* L.) oso balio kultural, natural eta zientifiko handiko zuhaitza da, eta bere generoko (*Taxus*) eta familiako (*Taxaceae*) espezie bakarra da Europan, Afrika iparraldean eta Asia mendebaldean.

Espezie dioikoa da (lore emeak eta arrak oin desberdinetan daude, hau da, hagin femeninoak eta maskulinoak daude), hazkunde motelakoa, hostoiraunkorra, eta 20 metroko altuera ere hartu dezake.




Enborrak azal arre-grisaxka dauka, eta barrutik gorrixka da. Adaburua oso zabala edo konikoa izan ohi da, adar luze, malgu eta lodi ugarirekin, eta horietan hedatu edo zintzilikatutako adartxoekin. Adin guztietan ateratzen ditu kimuak enborrean zein adarretan, begi lokartu ugari garatzen baitira, adarkadura nahaspilatua eragiten dutenak.

Hostoa modu helikoidalean txertatzen da adartxoetan. Kolore berde bizi eta ilunekoa da gainaldean eta argiagoa azpialdean.

Lore arrak

Otsailetik apirilera bitartean loratzen da.




lore emeak



Lore arrak

Hagina zuhaitz toxikoa da, "taxina" alkaloidea duelako; haziaren azal mamitsuan izan ezik.



Hazia partzialki estalita dago kupula mamitsu gorri eskarlata edo koral koloreko batekin (ariloa). Arilo horren funtzioa da hagina barreiatzea. Egitura mamitsua du, zuku muzilagodun azukredunez betea, eta txori eta beste animalia ugari erakartzen ditu, zeinek euren deiekzioekin haziak barreiatzen baitituzte arbola nagusitik urrun.



Argazkiak : Froilan Sevilla / Cesefor / Ibader

www.life-baccata.eu